

OMENALDIA DERIO'N (Labayru'k Kerexeta'ri)

Uztaillaren 12'an izan zan. Derio'ko Seminarioan.

Urte guztietan egiten dan gauzea da, baiña urte ba-koitzean eukiten dau bere berezitasuna ta bizitasuna. Aurten be bai.

Aurten Kerexeta omendu eben. Aurreko urteetan Lino Akesolo, Justo Mari Mokoroa eta beste batzuk izan eben euren goratarrea.

Omenaldiaren akademi-ekintza izan zan garran-tzitsuena. Lau itzaldi labur eta mamintsu: Ander Manterola'k azaldu eban omenaldiaren zergaitia argi eta zeatz, Gero Lino Akesolo'k egin eban berba ado-retsu eta gogotsu Euskal-Bibliaren kondaira egiteko, eta urrengo Karmelo Etxenagusia'k agertu ebazan Jaime'ren eleiz idazketako lanak, eta, azkenez, Igone Etxebarria'k aztertu ebazan Kerexeta'ren olerki la-nak. Eta amaitzeko Kerexeta'k berak egin eban berba labur eta zorrotz. Ez genkian Kerexeta ain eres-zale zanik, bere bizitzako unerik gozatsuenak eresa edo musikea entzuten igaroak zirala esan eban, entzun baiño be beiañago, pianoa jotzen igaro ebazanak.

Umore ona agertu eban aurkezle-lana egin eban Eguzkik, bere barregaiakaz omenaldiari gatza botate-ko-edo...

Eta aitatu bearrekoak dira emen Jon Enbeita ta Iri-neo Ajuria'k egin eben lana: Bizkai'ko bertso zarrak

abestu. Gure euskerearen arlo aztergarria da koplaz-arena eta Enbeita'k orretan egiten dau Ian, naizta gaur aurkeztu dauzanak lar arin batzuk izan, berak esan ebanez. Anboto'ko bertsoak, Marijesiak, Bei zarrare-nak, Peru Dubako, Imanoltxu... Marijesiak, esate-rako, gure eleizetan entzuten genduzan umeak gi-ñala, eta gernikaldean be abesten dirala diñoskue baiña olako ekiñakdi baten entzuteko aukerea izatea pozgarria da.

Gero alkarteko aparia, dana jai-giroan eta pozez amaitzeko.

Oraingo onetan Kerexeta'ri omenaldi egokia eso-kiñi dautson Labayru Ikastegia bera be ez dogu itzi bear goratu barik. Errian egiten dan euskeratik asita ainbeste euskaldun abedetu dauz erakunde onek, urte guztiko lanean erririk erri eta udako ikastaroan. Lan onentzat aldi latzagoak agertu jakuz, baiña egiña eginda dago eta egitekoa, era batera naiz bestera, egingo da.

Eta olako poz-giroko ospakizunak be bear dauz gure euskereak, batez be lan sakona egin eta gero iza-ten diranean.

Amaitzeko, eskuko egitarauan agertzen dan oler-kia zatia ezarriko dogu emen, Kerexeta'ren **Orbelak** liburutik artua (1958):

IGURIAKO ERROTAN

Igura'ko errotan
Amairu sorgin, gabeen;
Iguria'ko errotan
Dantza-dantzari kantetan.

Areik bai gorputz ariñak,
Arpegi argi, oin bizkor!
"Klin, klon, klin ta klan soñuaz
Ekiok ik, bolu, gogor».

Sorgin-gaba don, itxuraz;
Ilargi bete; ozkarbi;
Izarrak diz-diz; aiza
Lotan... Au gau zoragarri!

Iguria'ko errotan
Eundaka sorgin, gabeen;
Iguria ko errotan
Dantza-dantzari kantetan!

J. Kerexeta *Orbelak* 1958

OLAZAR'tar Martin'ek